

# NAFARROAKO ARARTEKOAREN TXOSTEN BEREZIA



Elebitasuna eta herritarren  
hizkuntza eskubideen egoera



**Defensor del Pueblo  
de Navarra**  
**Nafarroako Arartekoa**







**NAFARROAKO PARLAMENTUAK  
ELEBITASUNARI ETA HERRITARREN  
HIZKUNTZA ESKUBIDEEN EGOERARI  
BURUZ ESKATUTAKO TXOSTENA**



**Defensor del Pueblo  
de Navarra  
Nafarroako Arartekoa**

Izenburua: **Elebitasuna eta herritarren hizkuntza eskubideen egoera**

Argitaratzailea: Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren erakundea

© 2010ko Otsaila

Diseinua eta maketazioa: Carlos Fernández Prego

Inprimatzailea:

Lege gordailua:

%100 birziklatua, erabat klororik gabea eta bizi ziklo osoan ingurumen inpaktu gutxikoa den paperean inprimatua, ondoko ziurtagiriak dituena: Blauer Engel, Nordic Swan eta Europako Batasuneko etiketa ekologikoa.



# 0

---

AURKIBIDEA





# AURKIBIDEA

I. SARRERA. TXOSTENAREN JUSTIFIKAZIOA ETA XEDEA .....	11
II. ERREFERENTZIAKO LEGE-ESPARRUA. AZTERKETA .....	17
III. NAFARROAKO BIZTANLEEN HIZKUNTZA EREMUEN ARABERAKO BANAKETA .....	37
IV. HIZKUNTZA ESKUBIDEAK DIRELA-ETA NAFARROAKO ARARTEKOAREN ERAKUNDEARI AURKEZTUTAKO KEXAK .....	55
V. NAFARROAKO ARARTEKOAREN ERAKUNDEAK EGINIKO IRADOKIZUN ETA GOMENDIO NAGUSIAK .....	71
VI. GOGOETA OROKORRA. EUSKARA NAFARROAKO KULTURA- ETA ONDARE-BALIO GISA .....	95
VII. IRADOKIZUN OROKORRAK .....	101



# 1

---

SARRERA

TXOSTENAREN JUSTIFIKAZIOA  
ETA XEDEA



**Defensor del Pueblo  
de Navarra**  
**Nafarroako Arartekoa**

## 1. SARRERA. TXOSTENAREN JUSTIFIKAZIOA ETA XEDEA.

**2**009ko ekainaren 1ean, Nafarroa Bai parlamentu taldeak eskatuta, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak erabaki zuen Nafarroako Arartekoari eskatzea elebitasunari eta herritarren hizkuntza eskubideei buruzko txosten bat egin dezan”.

11

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Nafarroako Parlamentuko Mahaian azaldutako zioen arabera, txosten hori eskatzearen arrazoia da 2008an gora egin duela herritarrek beren hizkuntza eskubideak direla-eta Nafarroako Arartekoaren Erakundeari aurkeztu dizkioten kexen kopuruak.

Eskari horri erantzuteko, gai bakarreko txosten hau egin da. Haren abiapuntua da Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legetik heldu diren herritarren hizkuntza-eskubideei buruz dagoen erregulazioa, berariaz erreparatuz euskara administrazio publikoetan, bereziki Nafarroakoetan, erabiltzeari buruzko araudiari. Hori guztia Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko (aurrerantzean LORAFNA) 9.

artikuluaren eta arestian aipatutako foru legearen ezarritakoaren esparruan. Biak, izan ere, lege mailako tresnak dira, eta Gorte Nagusien eta Nafarroako Parlamentuaren borondateak heldu diren legeak direnez, parlamentu-ordezkariek honek, ez ditu zalantza jarriko.

Egun indarra duen antolamenduari buruzko analisia egin ondoren, bilatzen dugun helburua da gomendioen eta iradokizunen multzo bat aurkeztea, hain zuzen ere hobetzeko Konstituzioak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak eta, hura garatuz, Euskarari buruzko Foru Legeak herritar nafarrei aitortzen dizkieten hizkuntza eskubideen babes-maila.

Txosten honen egiturak hiru atal handi dauzka: lehenengoan, euskarari Nafarroan aplikatzekoa zaion arauen esparrua deskribatzen da, bai eta hark Nafarroako biztanleengan eta udalengan eragin duen emaitza (II. eta III. puntuak); bigarrenean, euskara sakoneko gai gisa duten eta erakunde honetan aurkeztu diren kexen aipamenak jasotzen ditugu, bai eta erakunde honek, txosten hau egin baino lehen, eman izan dituen gomendioen, iradokizunen eta legeko betebeharren gogorazpenen laburpen bat (IV. eta V. puntuak); eta hirugarrenean, gogoeta orokor bat eta iradokizun orokor batzuk egiten dira euskarak Nafarroan

daukan araubide juridikoari buruz, betiere erregelamendu-eta administrazio-esparruari mugatuak; izan ere, horiek, zalantzarik gabe, baliagarri gerta daitezke Nafarroako hizkuntza bereki hori babesteko eta garatzeko, honako legezko printzipioak errespetatuz: borondatezkotasuna, gradualtasuna, hizkuntzarengatiko bazterkeria eza eta errealitate soziolinguistikoari erreparatu behar izatea (VI. eta VII. puntuak).

Argibide gisa, jasota utzi nahi dugu gaztelaniaz ari garenean, “euskera” edo “vascuence” hitzak bereizitasunik egin gabe erabiltzen ditugula eta erabiliko ditugula. Bi adiera horiek onartuta daude Espainieraren Errege Akademiaren “Diccionario de la Lengua Española” izenburuko lanean (22. argitaraldia, 2001); botere publikoek ere erabiltzen dituzte (esate baterako, Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia ugarian), eta haien erabilera gauza normalizat eta ohikotzat hartu behar da.







# 2

---

ERREFERENTZIAKO  
LEGE-ESPARRUA

AZTERKETA



**Defensor del Pueblo  
de Navarra**  
**Nafarroako Arartekoa**

## 2. ERREFERENTZIAKO LEGE-ESPARRUA. AZTERKETA.

**T**xostenaren gaiari buruzko azterketa zentratzeko, komeni da Nafarroan hizkuntzaren arloa gidatzen duten konstituzio-esparruari eta arauen esparruari buruzko errebaso labur bat egitea.

17

A) 1978ko Konstituzioa.

Lehenbizi, Espainiako Konstituzioak 3.1 artikuluan ezartzen du gaztelania dela Estatuaren hizkuntza ofiziala eta espainiar guztiek dutela gaztelania jakiteko betebeharra eta erabiltzeko eskubidea. Gainera, artikulua horretako bigarren puntuan gehitzen du Espainiako gainerako hizkuntzak ere ofizialak izango direla beren autonomia-erkidegoetan, haien estatutuekin ados. Hirugarren puntuan, berriz, honakoa deklaritzen du: Espainia aberatsa izanik mintzairamoldez, bereziki errespetatu eta zainduko da kultura-ondare hori". Ulertu beharrekoa da botere publiko guztiek egiten dutela hori.

B) Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa.

Maila hierarkikoan, LORAFNA da bigarrena. 9. artikuluan, lehenengo idatz-zatian, dio gaztelania dela Nafarroako hizkuntza ofiziala; bigarren idatz-zatian, berriz, honakoa gehitzen du: “Euskarak ere hizkuntza ofizialaren maila izanen du Nafarroako eskualde euskaldunetan”. Arau horrek berak ohartarazten du foru lege batek zehaztuko dituela eskualde euskaldunak, eta euskararen erabilera ofiziala arautuko duela eta Estatuko legeria orokorra abiapuntu harturik, hizkuntza horren irakaskuntza antolatuko duela. Horrenbestez, LORAFNARI erreparatuta, gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala, eta euskara ere ofiziala izanen da hiru printzipioren arabera: gaztelaniarekin baterako koofizialtasuna (“hizkuntza ofizialaren maila ere izanen du”), lurraldetasun partziala (“eskualde euskaldunetan”) eta erabilera ofizialaren arautzearen geroratzea, foru lege batek ezarriko baitu, hain zuzen ere proiektu osoari buruzko azken bozketa batean Parlamentuaren Osoko Bilkuraren erabateko gehiengoa lortu beharko duen foru lege batek (LORAFNAREN 20.2 artikulua).

Hala eta guztiz ere, lege organikoaren 9. artikulua erregulatzea, eta horregatik bidea ematen du Nafarroako Parlamentuak edo Nafarroako Gobernuak, nahi badute, era guztietako neurriak har ditzaten (arau gisakoak nahiz plangintzaren, programazioaren edo exekuzioaren arlokoak) euskararen ikaskuntza eta erabilera normala sustatzeko Nafarroa osoan edo haren zati batean, zeren eta Nafarroako Foru Komunitateak eskumen osoak baitauzka kulturaren arloan (eta euskara Nafarroako kulturaren zati bat da antzin-antzinatik), bai eta honako arlo hauetan ere: irakaskuntza, foru zuzenbide zibila, foru erakundeen funtzionamendua, funtzionario publikoen estatutua, administrazio prozedurako arauak, trafikoa eta zirkulazioa, hedabideei buruzko legegintza-garapena eta -exekuzioa eta Nafarroako justizia-administrazioaren arloko eskumen exekutiboak.

C) Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea.

Hirugarren maila hierarkikoan, behera goazela, LORAFNaren 9. artikuluan jasotako lege-igorpenera betetzearen emaitza dago. Izan ere, lege-igorpenera hura betetze aldera, Nafarroako Parlamentuak Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea onetsi zuen.

Foru lege horren xedea da euskararen erabilpen normal eta ofiziala arautzea gizarte-bizikidetasunaren eta irakaskuntzaren esparruetan (1.1 artikulua). Haren “ezinbesteko” helburuak, hau da, legegileak legea aldarrikatuz bilatzen dituen xedeak, hiru dira: herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko eskubidea babestu eta eraginkor bihurtzeko tresnak zehaztea; euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea Nafarroan (osoan), bere erabilpena sustatzeko neurriak adieraziz; eta euskararen erabilpena eta irakaskuntza bermatzea, borondatezkoatasun, mailakatze eta begirune irizpideei jarraiki. Hori guztia Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren arabera (1.2 artikulua).

Euskarari buruzko Foru Legeak adierazten du euskara eta gaztelania Nafarroako hizkuntza berekiak direla, eta aitortzen du, oro har, herritar guztiek haiek ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea dutela. Gaztelania Nafarroa osoan hizkuntza ofizialaren estatutua duen bitartean, euskarak hizkuntza ofizialaren estatutu hori hartzen du soilik eremu “euskalduna” deitutakoan (2. artikulua).

Jakina den bezala, 5. artikuluan, Euskarari buruzko Foru Legeak Nafarroako hiru hizkuntza-eremu mugatzen ditu: eremu euskalduna, eremu mistoa eta eremu ez-

euskalduna. Kasuan kasuko eremuaren arabera, sailkapen horrek trataera juridiko desberdina ekarriko du herritarren eta botere publikoen arteko harremanetan euskara erabiltzeari dagokionez, eta, horrenbestez, herritarrek euskara jakiteko eta erabiltzeko eskubide subjektiboari dagokionez ere. Lehenengo eremuan gaztelaniaren eta euskararen koofizialtasun printzipioa da araua; bigarren eta hirugarren eremuetarako, berriz, botere publikoek euskararen erabilera sustatzearen printzipioa ezartzen da; sustapen hori, nolana ere, neurri handiagoan edo txikiagoan gerta daiteke (nahiz eta logikoa izan neurriren batean gertatu behar dela, zeren eta legegilearen ezinbesteko helburuetako bat baita, foru legeko 1.2.b) artikularen arabera), eta bereziki eremu mistoan gertatuko da (foru legeko 25. artikuluan ezarritakoari begiratuta), betiere errealitate soziolinguistikoari eta gizarte-eskakizunari erreparatuz.

Horrela, eremu euskaldunean, honako araubidea eratzen da: herritar guztiek eskubidea dute bi hizkuntzak erabiltzeko administrazio publiko guztiekiko harremanetan, eta eskubidea dute, halaber, hautatzen duten hizkuntzan arreta jasotzeko. Toki entitateen kasu zehatzean, nahitaez bi hizkuntzak erabili beharko dituzte beren xedapen, argitalpen eta hiri-bideetako

errotulazioan, bai eta beren toki-izen berezietan ere, nolnahi ere era tradizionalak errespetatuz.

Foru legeak ez du 10. artikulutik 15. artikulura bitartekoetan araubide berezirik aurreikusten Foru Komunitateko Administrazioarentzat, baina artikulua horietatik hartan aplikatzekoak diren ondorioak ateratzen dira: eremu euskaldunean bizi diren herritar guztiek eskubidea dute euskara nahiz gaztelania erabiltzeko haren organoekiko harremanetan, eta eskubidea dute, halaber, hautatzen duten hizkuntzan arreta jasotzeko; horretarako, Foru Administrazioak neurri egokiak hartu beharko ditu eta beharrezko gerta daitezkeen bitartekoak erabaki beharko ditu, eskubide horren mailaz mailako erabilpena bermatzeko (10.1 artikulua); Foru Administrazioako organoek parte hartzen duten ekintza guztiak, eremu euskaldunean eragina duenak, bai eta administrazio jakinarazpen eta adierazpenak ere (errotulazioak, argitalpenak, xedapenak eta eremu euskaldun horren tokietako izen bereziak) bi hizkuntzetan idatzi beharko dira (11. artikulua); toponimoen izendapen ofiziala euskalduna izanen da, gaztelaniazko bestelako izenik ez badago, kasu horretan biak erabiliko baitira [8.1.a) artikulua]; agiri publikoak, emaileak aukeratutako hizkuntza ofizialean idatzi beharko dira, edo, emaile bat



baino gehiago balitz, horiek aukeratutakoan; hori, halere, ez da oztopoa izanen gaztelaniaz luzatzeko eremu euskaldunetik at indarra izan behar duten kopiak (12. artikulua); eremu euskalduneko erregistro publikoetan, idazpenak dokumentua dagoen hizkuntza ofizialean luzatuko dira eta betiere gaztelaniaz, baina kopiak eta ziurtagiriak hizkuntza ofizialetatik edozeinetan luzatuko dira, herritarrak hautatu bezala (13. artikulua); bai Foru Administrazioak bai izaera publikoko enpresek eta fundazioek gaikuntza progresiboa sustatuko dute, eremu euskaldunean lan egiten duten langileek euskara erabil dezaten (15.1 artikulua); halaber, administrazio bakoitzak zehaztuko du zein lanpostutarako izanen den nahitaezkoa euskaraz jakitea, eta gainerako lanpostuentzat, kontuan hartzeko merezimendutzat hartuko da besteren artean (15.2 artikulua).

Eremu mistoan, euskararen erabilerak ez du izaera ofizialik, legegileak hala nahi izan duelako. Foru legeko 17. artikulua euskararen erabilpenari buruzko araupetze labur bat ezartzen du: alde batetik, herritarrek “Nafarroako” administrazio publikoei (foru administrazioa eta toki administrazioa) zuzentzerakoan euskara erabiltzeko duten eskubidea, administrazio horietatik kanpo utzi gabe haiek sortuak diren edo administrazioek

berek partaidetzaren gehiengoa duten entitateak, publikoak nahiz pribatuak (batzuetan oker alegatzen zaigun bezala), zeren eta horiek jatorrizko administrazioaren modalitateak baitira, eta bizia ematen dien administrazio matrizearen filialak; bestetik jasotzen da administrazio publiko guztiek (ez soilik Nafarroakoek) aukera izanen dutela zehazteko zein lanpostutarako izanen den nahitaezko euskaraz jakitea eta zeinetarako merezimenduztat hartuko den lanpostuak eskuratzeko hautaprobetan.

Adierazi dugun bezala, foru legeak gainerako gaietan mantentzen duen isiltasuna ez da oztopoa administrazio publiko eskudun bakoitzak bere jarduera administratiboan euskararen erabilpena sustatzea erabaki dezan, Nafarroako hizkuntza bereki horren berreskurapena babesteko, 1.2.b) artikuluan ezarritakoari jarraituz. Horrela, esate baterako inongo oztoporik ez dago administrazio publikoetara euskaraz jotzen duten herritarrei hizkuntza horretan arreta emateko, gaztelaniaz ere arreta emateaz gainera (ez da ahaztu behar bigarren hori dela eremu mistoko hizkuntza ofizial bakarra), edo bi hizkuntzak erabiltzeko beren xedapen, argitalpen, hiri-bideetako eta hiriarteko bideetako errotulazioetan eta tokietako izen berezietan. Toponimoei dagokienez,

administrazio guztiek 1986ko abenduan bazeudenak erabili behar dituzte (urte hartan hartu baitzuen indarra Euskarari buruzko Foru Legeak), salbu eta gaztelaniaz adierazitakoek euskaraz jatorrizko eta ohiko beste izen bat baldin badute, halakoetan biak erabiliko baitira (Pamplona-Iruñarena kasu paradigmaticoa da).

Eremu ez-euskaldunari dagokionez, foru legeko 18. artikulua oraindik ere zehatzagoa da. Soilik adierazten du herritarrek Nafarroako administrazio publikoetara euskaraz zuzentzeko eskubidea dutela, eta azken horiek interesdunei gaztelaniarako itzulpena eska diezaieketela, edo Nafarroako Gobernuaren gaztelania-euskara itzulpen ofizialeko zerbitzuak erabili ahalko direla. Hala eta guztiz ere, hori adierazi arren, ez dago inolako oztoporik administrazio publikoek eremu mistorako aipatu den gisa berean joka dezaten, hau da, 1.2.b) artikulua babesean susta dezaten euskara presente egon dadila beren jardueran, hura berreskuratzen laguntzeko, zeren eta eremu ez-euskaldunean ere euskara Nafarroako hizkuntza berekia baita. Horrela, eremu mistorako adierazi bezala, ezar dezakete, hala erabakiz gero, haietara euskaraz jotzen duten herritarrei hizkuntza horretan arreta emanen zaiela, gaztelaniaz ere arreta emateaz gainera (izan ere, hori baita eremu ez-

euskalduneko hizkuntza ofiziala), edo bi hizkuntzak erabiliko direla xedapen, argitalpen, hiri-bideetako eta hiriarteko bideetako errotulazioetan eta tokietako izen berezietan. Toponimoei dagokienez, administrazio guztiek orobat 1986ko abenduan bazeudenak erabili behar dituzte (urte hartan hartu baitzuen indarra Euskarari buruzko Foru Legeak), salbu eta gaztelaniaz adierazitakoek euskaraz jatorrizko eta ohiko beste izen bat baldin badute, halakoetan biak erabiliko baitira (esate baterako, horixe gertatzen da Aibar-Oibar, Sangüesa-Zangoza, Lónguida-Longida izenetan eta beste hainbatetan).

Funtzio publikoaren arloari dagokionez, beste lege-xedapen batzuk ere badaude. Nafarroako Parlamentuak, 2008an, Nafarroako Aurrekontuei buruzko Foru Legearen bitartez, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategineko 33. artikulua aldatu zuen –abuztuaren 20eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bitartez onetsia zen–, honako xedearekin: hautapen probak gainditu eta Nafarroako administrazio publikoetako edozeinetan, euskara edo Europar Batasuneko edozein hizkuntza jakin beharra duten lanpostuetan sartzen direnek, aurrerago, beren administrazio publikoan hutsik dauden eta hizkuntza hori

jakitea nahitaezkoa duten lanpostuak betetzeko deialdian baizik ez dute parte hartu ahal izanen. Aurreikuspen hori ezin izanen da aplikatu hautapen prozesuaren ondorioz interesdunak betebeharrak ezarria ez zuen lanpostu bat eskuratzen duenean, eskatutako hizkuntza aintzat hartu gabe.

#### D) Erregelamendu bitarteko garapena.

27

Hierarkia normatiboan beherantz goazela, laugarren mailan, Euskarari buruzko Foru Legeko lehen xedapenetik heldutakoa aurkituko dugu. Hartan, izan ere, ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru legea garatzeko behar diren erregelamendu mailako xedapen guztiak emateko.

Aurreikuspen hori betetzeko, Nafarroako Gobernuak zenbait foru dekretu onetsi ditu. Horien artean azpimarratzekoa da, Nafarroako administrazio publikoetako euskararen erabilerari buruz egun indarra duen araua baita, otsailaren 10eko 29/2003 Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoetan Euskararen Erabilera arautzen duena. Arau hori epaitegietan aurkatu izan da, eta horren ondorioz Nafarroako Auzitegi Nagusiaren epai batzuen bidez haren

arauetako batzuk deuseztatu izan dira (apirilaren 30eko 215/2008 epaia; abenduaren 16ko 1221/2004 epaia; azaroaren 4ko 1071/2004 epaia; urriaren 29ko 1053/2004 epaia; irailaren 30eko 910/2004 epaia; irailaren 30eko 911/2004 epaia; uztailaren 30eko 804/2004 epaia; uztailaren 5eko 698/2004 epaia; uztailaren 2ko 720/2004 epaia; ekainaren 25eko 624/2004 epaia; maiatzaren 20ko 587/2004 epaia; maiatzaren 20ko 590/2004 epaia; eta maiatzaren 20ko 585/2004 epaia). Epai horietako batzuk Auzitegi Gorenak berak berretsi ditu.

Epai horiek jasotako erabaki judizialen indarrez, deklaratu da erabat deusezak direla 15.1, 18.3, 21.1 eta 23. artikulua, eta Auzitegi Gorenak ere deuseztasun hori berretsi du 2008ko apirilaren 19ko epaian (18.3 artikulua) eta 2009ko uztailaren 7ko epaian (15.1 artikulua, 18.3 artikulua, 21.1 artikuluko lehen lerrokada eta 23.1 artikulua).

Euskara Nafarroako unibertsitatez besteko irakaskuntzan sartzeari eta erabiltzeari buruzko erregelazioa funtsean maiatzaren 19ko 159/1988 Foru Dekretuaren bitartez egin zen. Hura garatzeko, gero, Hezkuntza kontseilariaren foru aginduak eman izan dira. Erregelamendu horren arabera, laburbilduz, euskara duten hiru irakaskuntza eredu ezarri

ziren: A eredia (gaztelaniazko irakaskuntza, euskara ikasgai gisa harturik), B eredia (euskarazko irakaskuntza eta gaztelania ikasgai gisa eta erabilera-hizkuntza gisa zenbait ikasgaitan) eta D eredia (irakaskuntza erabat euskaraz ematen da, gaztelania ikasgai izan ezik).

Nafarroako Unibertsitate Publikoari dagokionez, maiatzaren 12ko 110/2003 Foru Dekretuaren bitartez onetsitako estatutuetan euskarak unibertsitatean izanen zuen araubidea ezarri zen. 118.1 artikulua adierazten du gaztelania eta euskara Nafarroako hizkuntza berekiak direla; eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko kide guztiek bi hizkuntzak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea aitortzen du, 119. artikuluan ezarritako moduan. Ondo ondo eman diren erregelamenduei jarraituz, unibertsitate-erkidegoko kide guztiek eskubidea dute unibertsitateko gobernu-organoei eta zerbitzu administratiboei foru erkidegoko hizkuntza berekietatik edozein erabiliz zuzentzeko; eskubidea dute, halaber, unibertsitateko bileretan hizkuntza horietako edozeinetan hitz egiteko; eskubidea dute irakaskuntzak euskaraz jaso eta eskaintzeko, eta lanak azterketak edo frogak euskaraz egiteko, unibertsitateak euskaraz eskaintzen dituen ikasgaietan. Unibertsitateak honako konpromisoak hartzen ditu: eskubide horiek gauza

daitezela bermatzea: behar diren baliabideak jartzea; jarduera akademikoetan euskararen erabileraren plangintza onestea eta jarduera horiek garatzea gizartean dauden beharren eta eskaeren arabera; irakasleak eta administrazioko langileak prestatzeko eta kontratatzeko politika bat garatzea, euskara irakaskuntzan ezartzeko eta hura harreman administratiboetan eta lan harremanetan erabil dadin, hurrenez hurren; euskararen ezagutza baloratzea euskaraz jakitea nahitaezkoa ez den lanpostuak betetzeko lehiaketetan; gaztelaniaren eta euskararen erabilera bultzatzea barneko eta kanpoko erabilerarako dokumentazio administratiboan; eta bi hizkuntzen erabilera bermatzea paper-gauzetan, errotulazioan, publizitatean eta Nafarroako administrazio publikoekiko harreman instituzionaletan.

Funtzio publikoarekin lotutako arloan Foru Legeari buruz egin den erregelamendu-garapenari dagokionez, Nafarroako Gobernuak ekainaren 15eko 55/2009 Foru Dekretua onetsi zuen, zeinaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako eta haren erakunde autonomoetako plantilla organikoan euskaraz jakitearen trataera arautu baitzen. Eremu euskaldunean, euskaraz jakitea merezimendu kualifikatu gisa baloratzeko bertan dauden lanpostuetarako, plantillan nahitaezko baldintzat



jo ez den kasuetan, % 6 emanen da merezimenduen baremoaren gainerakoari esleitu zaion puntuazio osoarekiko; % 10era arte areagotu ahalko da puntuazio hori zenbait lanpostuk herritarrekin duten harreman mailaren arabera. Eremu mistoan, euskara merezimendu gisa baloratzeko bertan dauden lanpostuetarako, nahitaezko baldintzatzat jo ez den kasuetan, % 3 emanen da merezimenduen baremoaren gainerakoari esleitu zaion puntuazio osoarekiko; % 6ra arte areagotu ahalko da puntuazio hori zenbait lanpostuk herritarrekin duten harreman mailaren arabera. Foru dekretu horrek indarrrik gabe uzten ditu Nafarroako Administrazio Publikoetan Euskararen Erabilera arautzeari buruzko otsailaren 10eko 29/2003 Foru Dekretuko 21. eta 23. artikulua.

#### E) Tokiko ordenantzak.

Nafarroako Foru Komunitateak euskara eta haren erabilera arautzeko emandako lege- eta erregelamendu-xedapenen multzo zabal horri, zenbait toki entitatek, beren lurralde-eremuetarako, onetsitako ordenantzak gehitu behar zaizkio; bereziki eremu euskaldunean eta eremu mistoan. Tokiko ordenantza horiek halako osagarri edo plus bat dira aipatutako lege- eta arau-esparrurako. Haien xedea da Nafarroan sustatzea euskararen berreskurapena eta

garapena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 1.2.b) artikulua ezarritako funtsezko helburuei jarraituz. Inolaz ere ezin dira ordenantza horiek foru lege horren aurreikuspenen aurka jarri edo ezin izanen dituzte aurreikuspen horiek indarrik gabe utzi, ez eta herritarrei eskubiderik ukatu ere edo eskubide horiek baldintzatu harik eta haiek zamagarri bihurtu arte.

#### F) Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Gutuna.

Azkenik, Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Gutuna dago, Europako Kontseiluak Estrasburgon 1992ko azaroaren 5ean egina eta Espainiak 2001eko otsailaren 2ko tresnaren bitartez berretsia. Bada hari dagokionez, Nafarroako Auzitegi Nagusiak, 2004ko abenduaren 4ko eta abenduaren 16ko epaietan berariaz adierazi du haren aurreikuspenak “barne-leggedian jaso direla, hain zuzen ere 18/1986 Foru Legean eta aurkatutako foru dekretuan, oro har gutun horretan adierazitakoaz gorako zehaztasunarekin ere”. Nafarroako Auzitegi Nagusiarentzat, Euskarari buruzko Foru Legea gutunaren aurreikuspenei egokitzen zaie, euskaldunen hizkuntza-eskubideak bermatzeari dagokionez; hori dela eta, txostenean jasotako analisia Euskarari buruzko Foru Legea osatzen duten arauen menpe jarri beharko da.

Azken ohar bat: Txostena ez da sartzen Euskarari buruzko Foru Legearen aurreikuspenetatik bakarra ere aldatzera. Hori erabakitzeke eskumena soilik Nafarroako Parlamentuari dagokio, ezinbestez hala behar baitu. Gainera, baieztapen honek bil ditzakeen salbuespen eta huts egiteko aukera guztiekin ere, parlamentu-talde batzuek adierazitakoaren arabera, ez da oraingoz aurreikusten Euskarari buruzko 1986ko Foru Legea aldatzeko edo gaurkotzeko aukerarik. Horrenbestez, foru lege horrek une honetan egituratzen duen esparrua da gure abiapuntua, eta iradokizun batzuk egiten ditugu, nagusiki Nafarroako administrazio publikoei zuzenduak, hori baita Nafarroako Parlamentuaren goi-ordezkaritari dagokion egitekoa antolamendu juridikoak aitortzen dituen eskubideen babes maila defendatzearen eta hobetzearen arloan; iradokizun horiek, erakunde honen iritziz, foru legearen erregelamendu-garapenean eta aplikazioan sartzen dira, foru legeak gaur egun duen testuarekin ere, baldin eta bilatzen dena bada Nafarroan euskararen babesa, garapena eta erabilera sustatzea.





# 3

---

BIZTANLEEN HIZKUNTZA  
EREMUEN ARABERAKO  
BANAKETA



**Defensor del Pueblo  
de Navarra**  
**Nafarroako Arartekoa**

### 3. BIZTANLEEN HIZKUNTZA EREMUEN ARABERAKO BANAKETA.

37

A dierazi dugun bezala, Euskarari buruzko Foru Legeak Nafarroa hiru hizkuntza eremutan banatzen du: euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna. Ondoren, argibidetarako datu batzuk emanen ditugu eremu bakoitzean sarturik dauden udalen kopuruari buruz eta eremu bakoitzeko biztanleriak Nafarroako guztizkoan duen garrantziari buruz. Horretarako, bi irizpide erabili ditugu: eremu bakoitzeko udalen kopurua eta udal eta eremu bakoitzeko biztanleek kopurua, 2009ko urtarrilaren 1ean, Nafarroako Estatistika Institutuak emandako datuen arabera.

Oro har, hauxe da udalen eta biztanleriaren banaketa:

Eremuak	Udalak		Biztanleria	
	Kopurua	%	Biztanleak	%
Euskalduna	63	23,16%	58.932	9,35%
Mistoa	52	19,12%	343.585	54,49%
Ez-euskalduna	157	57,72%	228.061	36,17%
<b>GUZTIRA</b>	<b>272</b>	<b>100,00%</b>	<b>630.578</b>	<b>100,00%</b>

Hauxe ondoriozta daiteke:

1. Nafarroako udal gehienak (erdia baino gehiago) eskualde ez-euskaldunean daude, eta bostetik bat, berriz, eremu mistoan.
2. Biztanleriari erreparatuta, ordea, Nafarroako biztanleen erdia baino gehiago eremu mistoan dago; heren bat baino gehixeago eremu ez-euskaldunean; eta hamarren bat baino gutxixeago, azkenik, eremu euskaldunean.
3. Geografikoki, jakina den bezala, eremu euskalduna Nafarroako iparraldean dago, Zaraitzuko eta Erronkariko Pirinio aldeko ibarrak alde batera utzita. Eremu mistoak aipatutako Pirinio aldeko bi ibarrak hartzen ditu, iparraldean Iruña inguruetan dauden beste ibar batzuk, hiriburua eta haren konurbazioa –hartatik hurbil dauden udal batzuk izan ezik– eta hein handi batean Iruña-Lizarra ardatzean –Garesko bidetik nahiz Etxauriko portutik joanda– dauden udalak.

Udalen eta biztanleen arabera, hiru eremuak honela ageri dira banatuta:



### 3.1. EREMU EUSKALDUNA.

INE Kodea	Udalak	2009
003	ABAUREGAINA/ABAURREA ALTA	140
004	ABAURREPEA/ABAURREA BAJA	41
010	ALTSASU/ALSASUA	7.623
017	ANUE	369
020	ARAITZ	582
022	ARANTZA	641
024	ARANO	134
025	ARAKIL	952
027	ARBIZU	1.060
031	ARESO	277
033	ARIA	59
034	ARIBE	50
037	ARRUAZU	119
044	BAKAIKU	338
049	BASABURUA	851
050	BAZTAN	8.127
054	BERTIZARANA	645
055	BETELU	347
058	AURITZ/BURGUETE	293
073	ZIORDIA	400
081	DONAMARIA	433
082	ETXALAR	823

<b>INE Kodea</b>	<b>Udalak</b>	<b>2009</b>
084	ETXARRI-ARANATZ	2.460
087	ELGORRIAGA	224
090	ERATSUN	165
091	ERGOIENA	426
092	ERRO	777
098	ESTERIBAR	2.105
102	EZKURRA	169
112	GARAIOLA	112
115	GARRALDA	203
117	GOIZUETA	780
123	UHARTE-ARAKIL	841
126	IMOTZ	446
127	IRAÑETA	161
129	ITUREN	497
130	ITURMENDI	401
137	LABAIEN	253
138	LAKUNTZA	1.205
140	LANTZ	113
144	LARRAUN	1.023
149	LEITZA	2.920
153	LESAKA	2.808
187	OITZ	149
189	OLAZTI/OLAZAGUTÍA	1.737
195	ORBAITZETA	219

<b>INE Kodea</b>	<b>Udalak</b>	<b>2009</b>
196	ORBARA	44
211	ORREAGA/RONCESVALLES	30
213	SALDÍAS	119
221	DONEZTEBE/SANTESTEBAN	1.647
226	SUNBILLA	659
236	ULTZAMA	1.663
239	URDAZUBI/URDAX	368
240	URDIAIN	704
244	URROTZ	191
248	LUZAIDE/VALCARLOS	418
250	BERA/VERA DE BIDASOA	3.691
256	HIRIBERRI/VILLANUEVA DE AEZKOA	127
259	IGANTZI	629
263	ZUBIETA	315
264	ZUGARRAMURDI	218
904	IRURTZUN	2.225
908	LEKUNBERRI	1.386
	<b>GUZTIRA</b>	<b>58.932</b>

### 3.2. EREMU MISTOA.

<b>INE Kodea</b>	<b>Udalak</b>	<b>2009</b>
002	ABÁRZUZA	574
016	ANSOÁIN	10.500
019	AOIZ/AGOITZ	2.464
028	ARCE/ARTZI	254
040	ATEZ	245
059	BURGUI/BURGI	235
060	BURLADA/BURLATA	18.595
075	CIRIZA	110
076	CIZUR	3.110
083	ECHARRI	67
085	ETXAURI	583
086	EGÜÉS	10.787
093	EZCÁROZ/EZKAROZE	347
095	ESPARZA	99
097	ESTELLA/LIZARRA	14.238
101	EZCABARTE	1.661
113	GARDE	176
118	GOÑI	173
119	GÜESA/GORZA	54
120	GUESÁLAZ	457
122	HUARTE/UHARTE	5.858
128	ISABA/IZABA	491

<b>INE Kodea</b>	<b>Udalak</b>	<b>2009</b>
131	IZA	982
133	IZALZU/ITZALTZU	46
134	JAUURIETA/JAUURIETA	216
136	JUSLAPEÑA	569
154	LEZÁUN	266
156	LIZOÁIN	308
185	OCHAGAVÍA	614
186	ODIETA	338
188	OLÁIBAR	224
193	OLZA (CENDEA DE)	1.576
194	OLLO	275
198	ORONZ	47
199	OROZ-BETELU	171
201	PAMPLONA/IRUÑA	198.491
206	PUENTE LA REINA/GARES	2.841
210	RONCAL/ERRONKARI	258
214	SALINAS DE ORO	115
222	SARRIÉS/SARTZE	65
245	URZAINQUI	91
247	UZTÁRROZ/UZTARROZE	192
252	VIDÁNGOZ/BIDANKOZE	107
253	BIDAURRETA	144
258	VILLAVA/ATARRABIA	10.642
260	YERRI	1.548

<b>INE Kodea</b>	<b>Udalak</b>	<b>2009</b>
262	ZABALZA	242
901	BARAÑÁIN	22.110
902	BERRIOPLANO	4.344
903	BERRIOZAR	9.020
906	ORCOYEN/ORKOIEN	3.320
907	ZIZUR MAYOR/ZIZUR NAGUSIA	13.345
	<b>GUZTIRA</b>	<b>343.585</b>

### 3.3. EREMU EZ-EUSKALDUNA.

INE Kodea	Udalak	2009
001	ABÁIGAR	102
005	ABERIN	368
006	ABLITAS	2.599
007	ADIÓS	185
008	AGUILAR DE CODÉS	108
009	AIBAR / OIBAR	911
011	ALLÍN	814
012	ALLO	1.078
013	AMÉSCOA BAJA	811
014	ANCÍN	383
015	ANDOSILLA	2.996
018	AÑORBE	537
021	ARANARACHE	85
023	ARANGUREN	7.139
026	ARAS	199
029	LOS ARCOS	1.277
030	ARELLANO	194
032	ARGUEDAS	2.420
035	ARMAÑANZAS	63
036	ARRÓNIZ	1.135
038	ARTAJONA	1.746
039	ARTAZU	121

<b>INE Kodea</b>	<b>Udalak</b>	<b>2009</b>
041	AYEGUI	1.667
042	AZAGRA	3.664
043	AZUELO	41
045	BARÁSOAIN	631
046	BARBARIN	74
047	BARGOTA	327
048	BARILLAS	195
051	BEIRE	342
052	BELASCOÁIN	124
053	BERBINZANA	687
056	BIURRUN-OLCOZ	202
057	BUÑUEL	2.404
061	EL BUSTO	81
062	CABANILLAS	1.483
063	CABREDO	103
064	CADREITA	2.052
065	CAPARROSO	2.717
066	CÁRCAR	1.176
067	CARCASTILLO	2.617
068	CASCANTE	4.034
069	CÁSEDA	1.039
070	CASTEJÓN	4.235
071	CASTILLO-NUEVO	18
072	CINTRUÉNIGO	7.636



INE Kodea	Udalak	2009
074	CIRAUQUI	475
077	CORELLA	8.031
078	CORTES	3.404
079	DESOJO	102
080	DICASTILLO	710
088	NOÁIN (VALLE DE ELORZ)	
	NOAIN(ELORTZIBAR)	6.806
089	ENÉRIZ	318
094	ESLAVA	138
096	ESPRONCEDA	134
099	ETAYO	84
100	EULATE	343
103	EZPROGUI	54
104	FALCES	2.641
105	FITERO	2.222
106	FONTELLAS	910
107	FUNES	2.379
108	FUSTIÑANA	2.624
109	GALAR	1.628
110	GALLIPIENZO	126
111	GALLUÉS / GALOZE	99
114	GARÍNOAIN	511
116	GENEVILLA	98
121	GUIRGUILLANO	87

<b>INE Kodea</b>	<b>Udalak</b>	<b>2009</b>
124	IBARGOITI	249
125	IGÚZQUIZA	345
132	IZAGAONDOA	180
135	JAVIER	113
139	LANA	196
141	LAPOBLACIÓN	151
142	LARRAGA	2.121
143	LARRAONA	112
145	LAZAGURRÍA	202
146	LEACHE	55
147	LEGARDA	106
148	LEGARIA	116
150	LEOZ	272
151	LERGA	84
152	LERÍN	1.905
155	LIÉDENA	335
157	LODOSA	4.939
158	LÓNGUIDA/LONGIDA	315
159	LUMBIER	1.397
160	LUQUIN	146
161	MAÑERU	389
162	MARAÑÓN	56
163	MARCILLA	2.834
164	MÉLIDA	780

<b>INE Kodea</b>	<b>Udalak</b>	<b>2009</b>
165	MENDAVIA	3.814
166	MENDAZA	308
167	MENDIGORRÍA	1.062
168	METAUTEN	283
169	MILAGRO	3.394
170	MIRAFUENTES	45
171	MIRANDA DE ARGA	957
172	MONREAL	468
173	MONTEAGUDO	1.168
174	MORENTIN	138
175	MUÉS	98
176	MURCHANTE	3.672
177	MURIETA	364
178	MURILLO EL CUENDE	648
179	MURILLO EL FRUTO	730
180	MURUZÁBAL	284
181	NAVASCUÉS	191
182	NAZAR	49
183	OBANOS	979
184	OCO	71
190	OLEJUA	53
191	OLITE	3.650
192	OLÓRIZ	174
197	ORÍSOAIN	82

<b>INE Kodea</b>	<b>Udalak</b>	<b>2009</b>
200	OTEIZA	969
202	PERALTA	6.056
203	PETILLA DE ARAGÓN	25
204	PIEDRAMILLERA	55
205	PITILLAS	556
207	PUEYO	318
208	RIBAFORADA	3.638
209	ROMANZADO	153
212	SADA	185
215	SAN ADRIÁN	6.201
216	SANGÜESA/ZANGOZA	5.210
217	SAN MARTÍN DE UNX	460
219	SANSOL	106
220	SANTACARA	956
223	SARTAGUDA	1.407
224	SESMA	1.286
225	SORLADA	62
227	TAFALLA	11.394
228	TIEBAS-MURUARTE DE RETA	629
229	TIRAPU	57
230	TORRALBA DEL RÍO	134
231	TORRES DEL RÍO	154
232	TUDELA	34.717
233	TULEBRAS	129

<b>INE Kodea</b>	<b>Udalak</b>	<b>2009</b>
234	ÚCAR	144
235	UJUÉ	222
237	UNCITI	218
238	UNZUÉ	134
241	URRAÚL ALTO	159
242	URRAÚL BAJO	273
243	URROZ - VILLA	394
246	UTERGA	194
249	VALTIERRA	2.569
251	VIANA	3.812
254	VILLAFRANCA	3.020
255	VILLAMAYOR DE MONJARDÍN	140
257	VILLATUERTA	1.069
261	YESA	254
265	ZÚÑIGA	127
905	BERIÁIN	3.651
	<b>GUZTIRA</b>	<b>228.061</b>





# 4

---

HITKUNTZA ESKUBIDEAK  
DIRELA-ETA NAFARROAKO  
ARARTEKOAREN ERAKUNDEARI  
AURKEZTUTAKO KEXAK



**Defensor del Pueblo  
de Navarra**  
**Nafarroako Arartekoa**



## 4. HITKUNTZA ESKUNIDEAK DIRELA-ETA NAFARROAKO ARARTEKOAREN ERAKUNDEARI AURKEZTUTAKO KEXAK.

### 4.1. ESTADISTIKA DATUAK

A) Elebitasuna dela-eta herritarrek 2001etik, erakundea lanean hasi zenetik, 2009ko abenduaren 31ra arte, 265 **kexa aurkeztu dituzte**. Horietatik 92 2001etik 2007ra bitarteko urteetan aurkeztu ziren; 37, berriz, 2008an, eta 136, azkenik, 2009an. Ikus daitekeen bezala, 2009koa izan da kexa gehien aurkeztu diren urtea, halako punturaino non euskararekin lotutako kexak izan baitira urte horretako kexen rankinean lehenengo tokia bete dutenak. Azken urteetan izandako igoera determinatu duen faktorea izan da Hizkuntza Eskubideen Behatokia Fundazioak Nafarroako Arartekoari igortzen dizkiola euskara erabiltzeko eskubidea dela-eta Nafarroako administrazio publikoek eginiko balizko urratzei buruz fundazio horrek jasotzen dituen kexak. Zehazki, 2009an, aurkeztutako 136 kexetatik % 94 Hizkuntza Eskubideen Behatokia Fundazioak aurkeztu ditu.

### Kexak, urteka


2001	8
2002	38
2003	12
2004	13
2005	8
2006	10
2007	3
2008	37
2009	136

**Guztira**

**265**

**56**

### Kexak, urteka



B) Erakundeak 2009ko abenduaren 31n 220 **kexatako espedienteak itxi ditu.**

Itxitako kexa guztietatik, onartutakoak (erakundeak sakonean planteaturiko gaiari buruzko erabakiren bat hartu duen guztiak, zentzu batean zein bestean) 196 izan dira; hau da, % 89.

24 dira onartu ez diren kexak, hain zuzen ere itxitako kexa guztien % 11. Kexak izapidetzeko ezezkoa heldu da, bai arrazoi subjektiboetatik –zehazki kexa-egileak daturik ez ematea, hirutan gertatu dena–, bai arrazoi objektiboetatik; honakoak, esate baterako: gaia erabaki judizial baten zain egotea (hamahiru kasutan); kexak helburu zehatzik ez izatea (hiru kasutan); erakundeak jada aztertu eta ebatzitako gai bat izatea (bi kasutan); edo Nafarroako Arartekoak izapidetzeko eskumenik ez izatea (hiru kasutan).

Hiru izan dira Gorte Nagusiek izendatutako Arartekoari igorri zaizkion kexak, Estatuko Administrazioaren organoen jarduerari buruzkoak izateagatik.

C) **Baietsitako kexei** dagokienez, hau da, erakundeak erreklamazio-egilearen kexak oinarria baduela jo duen

kasuak, 94 izan dira. Izapidetzeko onartutako guztien % 47 egiten dute, hau da, bitik ia bat. Horietatik, 85 kasutan, ikuskatutako Administrazio Publikoak onartu egin zuen erakundearen erabakia edo bitartekaritza. Horrenbestez, Nafarroako Arartekoaren esku-hartzearen onarpena % 90ekoa da; nabarmen handia, beraz.

Azpitarratzekoa da, erakundeak jardunean eman dituen zortzi urteetan, soilik bederlatzi kasutan gertatu dela administrazio publikoek ez onartzea hizkuntza eskubideak direla-eta egindako gomendio, iradokizun eta legezko betebeharren gogorarazpenak. Honako administrazio hauek izan dira ez-onartze horien arduradunak:

- Zazpi aldiz, Foru Komunitateko Administraziooko departamentuak: bat, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua; bat, Osasun Departamentua; bat, Ekonomia eta Ogasun Departamentua; bi, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua; bat, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua; eta bat, Toki Administrazioko Departamentua.
- Bi aldiz, toki entitateak: bat, Iruñeko Udala eta bestea Leitzako Udala.

D) **Kexak ezesteari dagokionez**, horrelakoak gertatu dira erakunde honek atzeman ez duenean Nafarroako administrazio publikoek herritarren hizkuntza eskubideak urratu dituztenik.

#### 4.2 KEXEN BANAKETA GAIAREN ARABERA

Gaiaren araberako banaketari dagokionez, kexak honako gaiei buruzkoak izan dira:

lehenbizi, **herritarrekiko idatzizko harremanak**: arlo horretan jaso dira kexa gehienak, zehazki 264 kexetatik 67, hain zuzen ere erregistratutako guztien % 25. Kexa horiek, nagusiki, herritarrekin elebitan nahiz euskaraz ez komunikatzeagatik edo gisa horretan ez erantzuteagatik aurkeztu dira.

Bigarrenik, herritarrei zuzendutako **inprimaki, esku-orri edo bestelako agirietan** euskara erabili ez eta gaztelania hutsez argitaratzeagatik aurkeztutako kexak daude. Arlo horretan 57 kexa jaso dira (guztien % 22).

Hirugarrenik, Nafarroako administrazio publikoetako **lanpostuen plantilla organikoetako hizkuntza eskakizunak** zehazteari buruzko kexak daude; zehazki haien artean daude

funtzio publikoan sartzeko euskara baldintza gisa exijitzearekin edo ez exijitzearekin lotutakoak, eta Nafarroako administrazio publikoetan euskarari, merezimendu gisa puntuatzen denean, ematen zaion balorazioarekin lotutakoak. Alderdi horiei buruz jasotako kexak 50 izan dira; guztizkoaren % 19, hain zuzen.

Kexen laugarren multzoan daude **eremu publiko, kale, hiri-bide eta hirien arteko bideetako eta abarretako errotulazio eta seinalizazioei** buruzkoak. Kexa horietan adierazitako desadostasunetan aipatzen da, bai euskarazko seinaleak ez egotea, bai euskarazko testuan erabiltzen den tamaina txikiagoa eta letrakera desberdina, gaztelaniazko testuaren aldean. Multzo horretan, 47 kexa aurkeztu dira; guztien % 17, hain zuzen.

Bosgarren tokian, **Administrazioko egoitza eta bulegoetako ahozko harremanetan edo Administrazio Publikoko langileekiko ahozko harremanetan euskaraz arretarik ez emateari buruzkoak** ageri dira. Kexa horiek aurkeztutako guztien % 14 egiten dute (36 kexa).

Gainerako kexak, % 3ra ere iristen ez direnak, era askotako gaiei buruzkoak dira, bereziki euskara unibertsitatearen esparruan ez erabiltzeari buruzkoak.

### 4.3 UKITUTAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ETA HIZKUNTZA EREMUEK ARABERAKO SAILKAPENA.

#### A) Ukitutako administrazio publikoaren araberako sailkapena


Honakoa da kexen banaketa ukitutako administrazio publikoek arabera:

Kexen hartzaileak diren administrazio edo entitate publikoak	Kexen kopurua	%
Foru Administrazioa	167	63,0%
Toki Administrazioa	81	30,6%
Nafarroako Arartekoa	2	0,8%
Estatuko Administrazioa	5	1,9%
Beste autonomia erkidego batzuetako toki administrazioak	1	0,4%
Sozietate Publikoak	3	1,1%
Nafarroako Unibertsitate Publikoa	6	2,3%
<b>GUZTIRA</b>	<b>265</b>	<b>100,0%</b>

61

Ikus daitezkeen bezala, aurkeztutako kexa gehienak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren aurka aurkeztu ziren, haren departamentu edo erakunde publikoen jardunarengatik. Horixe da 167 kexaren kasua –guztizkoaren % 48,5 egiten dute–. Horrenbestez, hiru kexetatik ia bi baino gehiago Foru Administrazioaren ekintzei buruzkoak izan dira.

## Kexen hartzaileak diren administrazio edo entitate publikoak



Toki entitateen jarduerak direla eta, 81 kexa aurkeztu dira –guztien % 31–; hau da, hiru kexetatik bat toki administrazio bati buruzkoa da.

Erakunde honen –Nafarroako Arartekoaren– jardura dela eta, bi kexa aurkeztu ziren: bat erakundeak euskarazko izena ez edukitzeari buruzkoa, 2001ean erregistratutakoa eta jada duela zenbait urte zuzendutakoa; eta bestea erakundearen argitalpen bat euskaraz ez editatzeari buruzkoa, 2004an erregistratutakoa.



Estatuko Administrazioaren organoen jarduerari dagokionez, 5 izan dira erregistratutako kexak.

Kexa bat erregistratu da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan eragina duena.

Sozietate publikoen jarduerari dagokionez, 3 kexa aurkeztu dira.

**63**

Azkenik, 6 kexaren hartzailea Nafarroako Unibertsitate Publikoa izan da.

Kexek Nafarroako Gobernuko departamentuetan ageri duten banaketari erreparatuz gero, honakoa da emaitza:

## NAFARROAKO GOBERNUKO DEPARTAMENTUAK

Osasun Departamentua	71
Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua	27
Hezkuntza Departamentua	21
Ekonomia eta Ogasun Departamentua	16
Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua	15
Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua	6
Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua	5
Toki Administrazioa	3
Landa Garapeneke eta Ingurumeneko Departamentua	1
Erakunde Harremanetarako Departamentua	1
Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>167</b>

Toki entitateei dagokienez, berriz, hauxe da emaitza:

## UDALAK

Abaurregaina	1
Altsasu	1
Antsoain	1
Agoitz	1
Arbizu	2
Areso	1
Aiegi	1
Barañain	4
Baztan	1

Berriozar	1
Burlata	2
Eguesibar	2
Lizarra	1
Etxarri-Aranatz	1
Irurtzun	2
Leitza	1
Nabaskoze	1
Iruña	47
Doneztebe	2
<b>UDALAK, GUZTIRA</b>	<b>73</b>

#### **MANKOMUNITATEAK**

Iruñerrikoa	3
Antsoain, Berriobeiti eta Berriozarko Gizarte Zerbitzuena	1
Jurramendikoa	1
Sakanako	3
<b>MANKOMUNITATEAK, GUZTIRA</b>	<b>8</b>

<b>TOKI ENTITATEAK, GUZTIRA</b>	<b>81</b>
---------------------------------	-----------

#### *B) Hizkuntza eremuen araberako sailkapena*


Hizkuntza eremuei erreparatuta, kexak zein administraziori zuzendu zaizkion begiratzen badugu, honakoa da emaitza:

## HIZKUNTZA EREMUAK

Euskalduna	15
Mistoa	242
Ez-euskalduna	2
<b>GUZTIRA (*)</b>	<b>259</b>

(\*) 6 kexa ezdira agueri Nafarroaz kanpoko administrazioei buruzkoak direlako

Kizkuntza eremuak



66

Amaierako ondorio gisa, azpimarra daiteke kexa gehienak administrazio publikoek, eta batez ere Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, Nafarroako eremu mistoan

izandako jokabideari buruzkoak direla. Hori zor dakioke, besteak beste, Euskarari buruzko Foru Legeak eremu mistoari, non euskaldun gehien-gehienak bizi baitira, eskaintzen dion toki eskasari. Izan ere, gomendagarria izanen litzateke eremu horretako zenbait gai erregelamendu bidez hobeki garatzea, foru legeko 1.2 artikuluan adierazitako helburuen harira.





# 5

---

NAFARROAKO ARARTEKOAK  
EMAN DITUEN IRADOKIZUN ETA  
GOMENDIOAK, AURKETZU  
ZAIKION KEXEN ETA BERE  
KABUZ HASITAKO JARDUEREN  
ONDORIOZKOAK



**Defensor del Pueblo  
de Navarra**  
**Nafarroako Arartekoa**



## 5. NAFARROAKO ARARTEKOAK EMAN DITUEN IRADOKIZUN ETA GOMENDIOAK, AURKEZTU ZAIZKION KEXEN ETA BERE KABUZ HASITAKO JARDUEREN ONDORIOZKOAK.

71

**A**tal honetan jaso ditugu herritarren hizkuntza eskubideak direla-eta 2001etik 2009ra erakunde honek eginiko jardueraren ariora emandako gomendio, iradokizun eta legezko betebeharren gogorarazpen nagusiak. Horien barnean sartzan dira, bai herritarrek aurkeztutako kexen ondoriozko erabakiak, bai erakundeak berak bere kabuz bultzatutako jardueren ondoriozkoak ere.

Daukaten bolumen handia dela eta, ez ditugu jaso, ordea, gomendio, iradokizun eta gogorarazpen guzti-guztiak, baizik eta beren eduki substantiboarengatik garrantzitsuentzat jo ditugunak.

Gomendioak, iradokizunak eta gogorarazpenak jasota emandako ebazpenak 70 izan dira guztira. Horietatik 68 kexei dagozkie eta 2, berriz, erakundeak bere kabuz eginiko jardueri.

Hauexek dira datuak, urteen arabera emanak:


### Ebazpenak, urteka

2001	2
2002	3
2003	7
2004	2
2005	4
2006	2
2007	1
2008	12
2009	37
<b>Guztira</b>	<b>70</b>

72

Kexa-espedienteetan eta erakundeak bere kabuz eginiko jardueretan Nafarroako Arartekoak emandako 70 ebazpenetatik 52ri erantzun diete Nafarroako administrazio publikoek. 42 onartu dituzte (% 81) eta 10, berriz, ez dituzte onartu (% 19). Gaur egun, erantzun gabeko 18 espediente daude.

### Ebazpenak, urteka



Atal honetan jasota dauden gomendio, iradokizun eta gogorarazpen nagusiak xede-administrazioa bereizita eta edukia adierazita eman ditugu. Gainera, gaiari buruzko ebazpenik behar izan gabe, aldeko konponbidea lortu deneko kasuak bildu ditugu, erakundearen bitartekaritzari esker eta administrazio interesdunak gaiari aurrea hartu diolako.

Garrantzitsua da zehaztea txosten honek jasotzen duen denbora-tarteari erreparatuta (2001tik 2009ra), litekeena dela egindako gomendio eta iradokizunetatik zati bat –onartuak nahiz ez-onartuak izan– birtualtasunik ez izatea gaur egun, dela egin diren arau-aldaketengatik, dela geroan haiek xede zituzten administrazio publikoek bete egin dituztelako, dela xede-administrazioak jarrera aldatu dutelako edo beste balorazio bat egin duelako. Hori dela eta, iradokizuna, gomendioa edo gogorarazpena egin zeneko testuinguruari buruzko informazioa eskaintzeko xedez, hura eman zeneko urtea adierazi dugu.

Horrez gain, adierazten da administrazioak gomendioa, iradokizuna edo gogorarazpena onartu duen ala ez duen onartu. Ezer adierazten ez den kasuetan, arrazoia da Administrazioak oraindik ere ez diola kasuko gomendio, iradokizun edo gogorarazpenari erantzunik eman.

## 5.1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOA

### 5.1.1. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua

– Nafarroako populazio osoari zuzenduriko kanpainen, argitalpen, liburuxka eta inprimakiak gaztelaniaz eta euskaraz argitaratzea, edo ele bitan, eremu euskalduneko biztanleei bidaltzeko, baita eremu mistoko biztanleei ere, eskariaren arabera. **Ez onartua** (2003. urtea).

– Erregelamendu-arau bat onestea, eremu mistoan euskararen ezagutza merezimendu gisa baloratzeko lanpostuetarako deialdietan, gutxienez ere Nafarroako Gobernuaren 2006ko irailaren 18ko erabakiaren terminoetan, hain zuzen ere ezagutza hori baldintza ez den kasuetan. **Onartua** (2007an).

– Herritarrek eremu mistoan dauden bulego eta zerbitzu publikoetara, ahoz nahiz idatziz, euskaraz jotzeko duten legezko eskubidea bermatzea, horretarako behar diren tresnak ezarriz, eta lehendabiziko unean herritarrei laguntza ematen

- dieten langileek Nafarroako hizkuntza bereki hori ez jakitea ez izatea eragozpen bat eskubide horretaz modu eraginkorrean baliatzeko. **Onartua** (2008an eta 2009an).
- Herritarren eskura jartzea hautapen prozesuetan parte hartzeko behar diren inprimaki guztiak, euskaraz zein gaztelaniaz. **Onartua** (2009an).
  - Euskarari buruzko Foru Legeko 15. artikuluan xedatua betetzea, eremu euskaldunari dagokionean administrazio publikoentzako betebeharrak jasotzeko, beraiei dagozkien eskumenen esparruan zehaztu behar izan dezaten zein lanpostutarako izanen den nahitaezkoa euskaraz jakitea, eta gainerakoentzat, kontutan hartzeko merezimendu gisa har dadin, besteren artean. **Onartua** (2009an).
  - Euskaraz jakitea nahitaezko baldintza gisa sartzea plantilla organikoan, eremu euskalduneko liburutegiko arduraduneko lanpostuetan, herritarrei zerbitzu hobea emateko eta Euskarari buruzko Foru Legeak herritarrei aitorturiko hizkuntza eskubideak bermatzeko. **Onartua** (2009an).

- Nafarroako Aldizkari Ofizialean, euskarazko bertsioan, argitaratzeko bidaltzen den informazioa formatu egokian bidaltzea, aldizkariko zerbitzuaren tratamenduan berma dadin euskaraz erabat argitaratuko dela. **Onartua** (2009an).
- Interesdunak erabili beharreko hizkuntzari buruzko aukera bat ez baldin badago, gaztelaniaz eta euskaraz idaztea eremu euskaldunean bizitokia duten pertsona fisiko nahiz juridikoei igortzen zaizkien komunikazio guztiak (2009an).

### **5.1.2. Erakunde Harremanetarako Departamentua**

- Nafarroako Parlamentuaren 2005eko abenduaren 23ko ebazpena betetzea. Izan ere, haren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da, Europako Kontseiluko Adituen Batzordeak emaniko txostenari jarraituz, irрати-lizentzien etorkizuneko adjudikazioetan, baimena eman diezaion programazioa euskaraz ematen duen irрати bati, eta horretarako kontuan har dezan azken hamarkadetan irратиaren arloan euskararen alde egindako lana (2008).

### 5.1.3. Ekonomia eta Ogasun Departamentua

- Eremu mistoko eta euskalduneko biztanleei erantzunak idatziz bidaltzen zaizkienean, Administrazioak dauzkan itzulpen zerbitzuak erabiltzea, Administrazioarengana euskaraz jotzen duten herritarrei erantzuna elebitan emateko; halaber, arlo horretan dauden beharrak aztertu ondoren, neurriak hartzea herritarren eskubidea bermatzeko, jendearentzako zerbitzu edo unitate zentraletan, garrantzizkoak direnetan, gaztelaniaz edo euskaraz arreta eman dakien. **Ez onartua** (2005. urtea).
- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko kanpaina edo beste foru-tributu batzuei dagokien erakunde-publizitatea elebiduna izatea –gutxienez ere eskualde euskaldunean, eta ahal den guztian eskualde mistoan–, eta euskarri bakarrean egitea, ez gaztelaniazko eta euskarazko ale bereizietan. **Onartua** (2008an).
- Nafarroako Zerga Ogasunaren telefono-zerbitzuan euskarazko arreta bermatzea. **Onartua** (2009an).

- Eskatzen duten eremu mistoko herritarrei Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena euskaraz bidaltzea. **Onartua** (2009an).

#### 5.1.4. Toki administrazioko Departamentua

- Eremu euskaldunetan egiten diren proiektuetako seinaleak elebitan idaztea. **Onartua** (2009an).

#### 5.1.5. Hezkuntza Departamentua

- Eremu euskalduneko bigarren hezkuntzako institutu baterako atezain lanpostua behin betiko betetzeko prozesua bultzatzea, eta hartarako, plantilla organikoan ezarritakoaren arabera, merezimendu kualifikatu gisa, euskaraz jakitea eskatzea. **Onartua** (2004an).
- Herritarren eskuetan jartzea tramiteak modu telematikoan euskaraz egin ahal izateko behar diren baliabideak. **Onartua** (2008an).
- Langileriaren arloan eta bitarteko materialen horniduraren arloan, behar diren neurriak hartzea guztiz bermatzeko egoki garatu direla Administrazio



Publikoko langileentzako euskarazko prestakuntza-ikastaroak. **Onartua** (2009an).

– Bermatzea Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean herritarrei telefonoz euskaraz arreta jasotzeko eskubidea. **Onartua** (2009an).

– Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko aldizkarian atzemandako akatsa zuzentzea, zenbait datu euskarara itzuli gabe baitzeuden. **Onartua** (2009an).

– 2009/2010 ikasturterako eta hurrengo urteetarako Sarrigurengo ikastetxe publikoko irakaskuntzen eta hezkuntza-ereduen plangintza egiteko, behar diren jarduerak egitea –kontuan hartuz ere gurasoek eta elkarteek eginikoak–, egiaz jakiteko D ereduko Lehen Hezkuntzako ikasleen artean zenbatek nahi duten Sarrigurengo ikastetxera joan; eta, emaitzen arabera, behar diren erabakiak hartzea. **Zati batean onartua, elkarte horiei entzunaldia emateari dagokionez** (2009an).

– Aztertzea zer aukera dauden ikastetxe publikoen eta pribatu itunduen eragin-esparruei buruz

indarra duten arauak aldatzeko, edo, bestela, Iturramako Bigarren Hezkuntzako Institutuko batxilergoko plazak zabaltzeko, berma dadin Tafallako Garcés de los Fayos Ikastolako ikasleak eta Zangozako Ikastolako ikasleak institutu horretan hartu ahal izatea; konponbide hori bidezkoa ez bada, ukitutako ikasleen gurasoekin ikastetxe bat eta bertara iristeko garraio bide bat adostu beharko dira, ikasle horiek denbora gehiago inbertitzeko beharrik izan ez dezaten. Beste konponbide bat izanen litzateke Hezkuntza Departamentuak zati batean edo guztiz diruz laguntzea ikasle horien garraioa beren jatorriko herritik amaieran esleitzen zaien ikastetxera. **Ez onartua** (2009an).

- Legez eremu mistoko bulego, zerbitzu eta zentroetan, herritar guztiek euskaraz hitz egiteko duten eskubidea eraginkor bihurtzeko betebeharra betetzea. (2009an).

### 5.1.6. Osasun Departamentua

- Eremu mistorako, gripearen aurkako txertaketa kanpainetan, afixak eta liburuxkak eredu

- elebidunean edo bereizirik, gaztelaniaz eta euskaraz, argitaratzea. **Onartua** (2002an).
- Liburuxkak eta material grafikoa, zehazki haurren osasun kartila, eremu mistorako eta euskaldunerako, elebitan argitaratzea, edo bereizirik, euskaraz eta gaztelaniaz. **Onartua** (2003an eta 2004an).
  - Lizarrako García Orcoyen Ospitaleko barneko errotulazioak elebitan jartzea. **Ez onartua** (2005ean).
  - Etxarri-Aranazko Emakumeari Laguntzeko Zentroko postu guztiak aztertu eta baloratzea, haien hizkuntza eskakizunaren ezaugarriak zehazteko, bereziki administrari laguntzailearen lanpostua eta osasun hezitzailearen lanpostua; eta, horrenbestez, baldintza gisa edo merezimendu kualifikatu gisa balora dadin euskaraz jakitea. **Onartua** (2007an).
  - Eskualde euskaldunean banakako osasun txartel elebidunak egiteko legezko betebeharra betetzea. **Onartua** (2008an).
  - Eremu mistoan topografiari buruzko akats zehatz bat zuzentzea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun

Zerbitzuaren zentro baten izendapenean atzemandakoa. **Onartua** (2009an).

- Eremu euskaldunean egiten diren osasun kanpaina guztietan euskaraz artatuak izateko eskubidea bermatzea. **Onartua** (2009an).
- Eremu mistoan kokatuta dauden bulego, zerbitzu eta osasun etxeetan euskaraz hitz egiteko eta hautatu duten hizkuntzan, ahoz nahiz idatziz, erantzuna jasotzeko herritarrek duten eskubidea eraginkor bihurtzea. **Onartua** (2009an).

### **5.1.7. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua**

- Eremu euskalduneko herritarrek departamentutik bidaltzen zaizkien komunikazio eta jakinarazpenak euskaraz edo elebitan, hala adierazten badute, jasotzeko duten eskubidea bermatzea. **Onartua** (2009an).

### 5.1.8. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua

- Elebitan idaztea kirol merituaren zilarrezko domina emateari buruzko inprimakiak. **Onartua** (2001ean).
- Jendearen eskura elebitan jartzea gazte-elkarte bat eratzeko egin behar diren izapideei eta agiriei buruzko informazioa. **Onartua** (2004an).
- Eremu euskaldunean eta mistoan, gaztelaniazko eta euskarazko argitalpenak bereizirik egiten direnean, hizkuntza bateko eta besteko aleak aldi berean banatzea, aldi berean irits daitezen herritarren eskuetara, are gehiago banaketa D ereduko ikastetxeetan egitekoa bada. **Onartua** (2008an).

### 5.1.9. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua

- Nafarroako Jaialdiei buruzko informazioko esku-orriak elebitan edo edizio bereizietan, euskaraz eta gaztelaniaz, argitaratzea. **Onartua** (2001ean).

- Eremu euskalduneko herritarrek Administrazioaren erantzuna elebitan jasotzeko eskubidea bermatzea. **Ez onartua** (2002an).
- Eskatzen duten herritarrei, Nafarroako Liburutegi Publikoen Sareko txartela elebitan ematea. **Onartua** (2003an).
- Baluarten garatzekoak diren jardueri eta ikuskizunei buruzko esku-orriak eta programak elebitan argitaratzea edo, bestela, bereizitako aletan, euskaraz eta gaztelaniaz. **Ez onartua** (2003an).
- Ikasleei zuzendutako turismoari buruzko informazioko webgune bat osorik euskarara itzultzea. **Onartua** (2009an).

### **5.1.10. Herri Lan, Garraio eta Komunikazio**

#### **Departamentua**

- Egin beharrekoak egin ondoren, Nafarroako eremu mistoko errepideetako bide seinaleak jartzen edo ordezten direnean, gaztelaniazkoaz gainera euskarazko izen ofiziala duten herrien kasuetan, bi

izenez agertzea herri horien izenak, Nafarroako Gobernuak berak onartutako toponimia ofizialean jasotako izenak erabiliz. **Ez onartua** (2005ean).

- Eremu euskalduneko bide seinaleak berrikustea, indarreko arauen arabekoak izan daitezen, toponimoei dagokienez. **Onartua** (2002an eta 2009an).

#### **5.1.11. Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua**

- Herritarrek eskualde mistoan dauden bulego eta zerbitzuetara, ahoz nahiz idatziz, euskaraz jotzeko duten eskubidea bermatzea, eta lehendabiziko unean herritarrei laguntza ematen dieten langileek Nafarroako hizkuntza bereki hori ez jakitea eragozpen ez izatea eskubide horretaz modu eraginkorrean baliatzeko. **Onartua** (2008an).

#### **5.2. TOKI ENTITATEAK.**

Nafarroako toki entitateen kasuan, beren ordenantzetan ezarritakoa hartu beharko da kontuan, Euskarari buruzko

Foru Legean eta aplikatzeakoak diren gainerako arauetan ezarritakoa kontuan hartzeaz gainera.

### 5.2.1. Altsasuko Udala.

– Euskarazko zerbitzua bermatzea udal zentroko goizeko ordutegian. **Onartua** (2009an).

### 5.2.2. Barañaingo Udala

– Udaleko webgunera euskaraz guztiz sartu ahal dadin bermatzea. **Onartua** (2009an).

– Udalak igorritako inprimaki guztiak elebitan idaztea, gaztelaniaz eta euskaraz. **Onartua** (2009an).

### 5.2.3. Bulatako Udala

– Bere ordenantzan ezarritakoaren arabera, behar diren tresnak ezartzea ahalbidetzeko nahi duten herritarrei udal bulegoetan arreta euskaraz eman dakien. **Onartua** (2004an).

– Bere ordenantzan ezarritakoaren arabera, euskara erabiltzen duten herritarrek erantzuna euskaraz



jasotzeko duten eskubidea bermatzea. **Onartua** (2009an).

#### 5.2.4. Lizarrako Udala

- Euskararen erabilerari buruz ezarritakoa betetzea, halako moduz non katalogoak, esku-orriak eta udalak antolatutako jarduera kulturei eta sozialei buruzko komunikazioak elebitan egingen diren. **Onartua** (2009an).

87

#### 5.2.5. Irurtzungo Udala

- D ereduko ikasleei Irurtzungo ikastetxe publikoan eskaintzen zaizkien tailerrak euskaraz ematea. **Onartua** (2009an).

#### 5.2.6. Leitzako Udala

- Udalarekiko harremanetan herritarrek gaztelania erabiltzeko duten eskubidea bermatzea; zehazki, udalak igortzen dituen komunikazioak euskara hutsean ez gotea. **Ez onartua** (2006an).

### 5.2.7. Iruñeko Udala

- Bere ordenantzan adierazitakoa betetzea, halako moduan non Administrazioarengana euskaraz zuzentzen diren herritarrei hizkuntza horretan erantzuna jasotzeko eskubidea bermatuko zaien. **Onartua** (2001ean, 2002an, 2003an eta 2005ean).
- Behar diren tresnak ezartzea udaleko arlo desberdinetatik herritarrei zuzentzen zaizkien komunikazioak elebitan idatz daitezen, baldin eta herritarrak jada hori behin adierazia baldin badu. **Onartua** (2001ean).
- Arloko beharrak aztertu ondoren neurriak ezartzea herritarrek zerbitzua gaztelaniaz edo euskaraz, haien aukeraren arabera, jasotzeko daukaten eskubidea bermatzeko, muntadunak diren eta jendeari irekita dauden administrazio-unitateetan. **Onartua** (2001ean).
- 0 eta 3 urte arteko zikloko lanpostuen plangintzan eta eskaintzan, hizkuntza eredu elebidunei buruzko eskakizunak eta igurikapenak aztertzea: gaztelania-euskara, gaztelania-ingelesa. **Onartua** (2002an).

- Udalak eremu euskaldunean bizi diren herritarrei zuzendutako komunikazioak eta jakinarazpenak gaztelaniaz eta euskara idaztea; bereziki, horixe egitea bere kabuz jarduten duen kasuetan, hain zuzen ere hartzaileak bere borondatea aurretik adierazi gabe ere. **Onartua** (2009an).
- Bere ordenantzan ezarritakoa betetzea, halako moduz non bermatuko baita telefono-arreta euskaraz jasotzeko herritarrek duten eskubidea. **Onartua** (2009an).
- Arrotxapeko Civiboxen funtzionamenduari eta ordutegiari buruz eskaintzen den informazioa elebitan idaztea. **Onartua** (2009an).
- Udalak eraginkor egitea herritar guztiei euskaraz arreta hartzeko eskubidea, udalak sorturiko edo udalaren menpeko sozietate eta fundazio publikoetan. **Ez onartua** (2009an).
- Iradokitzea ezen, euskara sustatzea egokitzen jotzen badu, bere jakinarazpenak gaztelaniaz eta euskaraz igor diezazkiela Nafarroako eremu mistoko herritarrei edo Iruñeko herritarrei, hala eskatuz gero. **Onartua** (2009an).

- Euskararen erabilerari eta sustapenari buruzko Ordenantzaren artikulua interpretatzea Euskarari buruzko Foru Legea inspiratu zuten printzipioen arabera. Printzipio horiek, bestalde, Ordenantzaren beraren zioen azalpenean bertan jasota daude. Zehazki, iradokitzen da euskarazko testuari gaztelaniazko testuaren –eta, nolahi ere ingelesezko testuaren– tamaina bera ematea eta distantzia beretik ikusteko modukoa izatea. (2009an).

### 5.3. BESTE ENTITATE BATZUK.

#### 5.3.1. Autopistas de Navarra S.A.

- Beharrak aztertu ondoren, Nafarroako autobideko txartela eskatzeko inprimakiak gaztelania-euskara formatuan eskaintzea erabiltzaileei. **Onartua** (2004an).

#### 5.3.2. Nafarroako Unibertsitate Publikoa

- Herritarren eskuetan jartzea tramiteak modu telematikoan euskaraz egin ahal izateko behar diren baliabide teknikoak. **Onartua** (2008an).

Azaldutakotik ondoriozta daitekeen bezala, oro har, Nafarroako administrazio publikoek modu onean onartzen dituzte Nafarroako Arartekoak herritarren hizkuntza eskubideak babestearen eta bermatzearen arloan egiten dizkien gomendioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorarazpenak.

Nabarmentzekoa da onarpen gehienak 2008an eta 2009an gertatu direla. Bi urte horietan, izan ere, heren bateraino egin dute behera egindako gomendioei buruzko errefusek. Ikus daiteke, horrenbestez, azken bi urte horietan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta eremu euskalduneko eta mistoko administrazio publikoek onarpen-jarrera hobea izan duela erakunde honek herritarren hizkuntza eskubideak hobeki errespetatze aldera hartu dituen erabakiak direla eta.





# 6

---

GOGOETA OROKORRA

EUSKARA NAFARROAKO  
KULTURA-ETA ONDARE-BALIO  
GISA



**Defensor del Pueblo  
de Navarra**  
**Nafarroako Arartekoa**



## 6. GOGOETA OROKORRA. EUSKARA NAFARROAKO KULTURA-ETA ONDARE- BALIO GISA.

95

**E**uskara Nafarroako eta nafar guztien kulturaren eta ondarearen elementu baliotsua da berez, eta botere publikoek hura babesteko, berreskuratzeko, planifikatzeko eta kudeatzeko hartzen dituzten erabakiak kulturaren eta hezkuntzaren arloko eztabaidan zentratu beharko lirateke. Euskararen babes publikoak eskatzen du behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak eta aurrekontukoak edukitzea Euskarari buruzko Foru Legeko 1.2 artikuluan aipatzen diren funtsezko helburuak betetzeko.

Eta horri dagokionez, erakunde honek, ezinbestez, bere egin behar ditu Nafarroako Foru Diputazioak Gipuzkoako Foru Diputazioari 1896ko urtarrilaren 11n adierazi zizkion hitz aipagarri hauek:

*“Y lengua de los navarros era y como lengua genuina de los navarros ha de ser considerado el idioma que creó el nombre glorioso de este Reino, y desde el Pirineo hasta el Ebro, el de mayor parte de las ciudades, villas y pueblos y,*

*como otros tantos incommovibles mojones de acotamiento, distinguió con raíces euskaras los montes, los ríos, bosques, valles y términos, incorporando la lengua a la tierra y sustrayéndola de esta suerte a las reivindicaciones de soñadas y, por gracia de esta lengua, desmentidas conquistas”.*

Horrenbestez, gaur den egunean, euskara babestea botere publikoek bertako hizkuntza gutxitu honekiko duten kultura-betebehar bat da, bai eta konstituzio-betebehar bat (Konstituzioaren 3.3 artikulua) eta legezko betebehar bat ere.

96

Bestalde, euskararen berreskurapena eta sustapena guztiz bateragarriak dira atzerriko hizkuntzen erabilera eta haietan emaniko hezkuntza eta prestakuntza sustatzearekin, eta bereziki ingelesaren kasuan, gizateriak egun bizi duen globalizazio prozesuaren hizkuntza komuna bilakatu baita. Botere publikoek Nafarroako hizkuntza berekiak eta atzerriko hizkuntzak susta ditzakete eta sustatu ere egin behar dituzte, eta bideak jarri behar dituzte herritarrek gaztelania ez ezik, beste hizkuntza bat edo bi edo hizkuntza gehiago ere menperatu ahal izateko. Helburua da bermatzea herritarrek eskubidea izan dezaten euskaraz jakiteko, beren borondatearen eta askatasunaren arabera eta errealitate soziolinguistikoaren eskakizunari eta errealitateari erreparatuta, Nafarroako hizkuntza berekia baita,

eta eskubidea izan dezaten, halaber, ingelesez jakiteko, mundu globaleko komunikazioan nagusitu den hizkuntza baita, bai eta atzerriko beste hizkuntza batzuk ere (alemanera, txinera eta abar), arrazoi estrategikoengatik gomendagarritzat jotzen bada.

Gaur egungo hizkuntza eredua –eta, are arrazoi handiagoz, etorkizuneko– eleanitza izateko joera badago: zenbat eta hizkuntza gehiago jakin, sakontasun edo zabaltasun gehiagorekin nahiz gutxiagorekin, orduan eta kultur maila handiagoa.

97

Euskararen kasuan, gainera, hizkuntza gisa duen berezko balioa hartu behar da kontuan. Europan bizirik dauden hiru hizkuntza aurre-indoeuroparretatik bat da (beste biak finlandiera eta hungariera dira). Hori dela eta, haren balioa ez da soilik mugatzen Nafarroara, Euskadira edo Espainiara; izan ere, Europako interes kulturaleraino ere iristen da, eta hori dela-eta Europako Kontseiluak aldizka erregioen edo gutxiengoaren hizkuntzen babesa eta sustapena ikuskatzen ditu. Ikuskatze horren emaitza, berriz, erakundearen txostenetan islatzen du.





# 7

---

IRADOKIZUN OROKORRAK



**Defensor del Pueblo  
de Navarra**  
**Nafarroako Arartekoa**

## 7. IRADOKIZUN OROKORRAK.

**A**zaldutakoa dela eta, eta jada erakunde honek eman dituen gomendio eta iradokizunen ildotik, honako iradokizun orokorrak egin ditugu:

101

**Lehenengoa.** Nafarroako Parlamentuak 2006ko otsailaren 2ko bilkuran erabakitakoaren ildotik, Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzeari buruzko otsailaren 10eko 29/2003 Foru Dekretua berraztertzea, haren araupetzea osatzeko, arloari buruzko erabaki judizialen arabera egokitzeko eta Euskarari buruzko Foru Legeak jasotzen dituen alderdi guztien ikuspegi orokor eta erabatekoa eskaintzeko, 1986tik metaturiko esperientziaren argitara.

Horri dagokionez, Nafarroako Gobernuari iradokitzen diogu Euskarari buruzko Foru Legearen exekuzioari buruzko erregelamendu orokor bat egin eta onets dezala, harekin ordeztzeko, ikuspegi osoago batetik eta erabilera sustatzearen ikuspegitik, aipatu foru dekretua eta lehendik dauden beste batzuk, halako moduz non, ahal den adostasun sozial handienarekin, egonkortasuna emanen baitzaie foru

legearen garapenari eta aplikazioari. Erregelamendu hori emateko, Euskarari buruzko Foru Legeko 1.2 artikuluan ezarritako funtsezko helburuak hartu beharko lirateke kontuan. Honakoak, hain zuzen:

- a) Herritarrek euskaraz jakiteko eta erabiltzeko duten eskubidea babestea eta hura gauzatzeko tresnak zehaztea.
- b) Nafarroan euskararen berreskurapena eta garapena babestea, haren erabilera sustatzeko neurriak ezarritik.
- c) Euskararen erabilera eta irakaskuntza bermatzea borondatezkotasunean, gradualtasunean eta begirunean oinarriturik, Nafarroako errealitate soziolinguistikoarekin bat.

Araupetze orokor horrek berariaz estali beharko litzuke erakunde honen ustez Euskarari buruzko Foru Legeak, Nafarroako eremu mistoari dagokionez, hizkuntza horren erabilera arruntaren arloan dauzkan hutsuneak (bertan, biztanleriaren logikari jarraituz, indar handiagoa jarri beharko litzateke euskara garatzeko eta sustatzeko helburuan, hain zuzen ere foru legeko 1.2 artikuluan



azaldutakoan). Izan ere, egiaztatu ahal izan den bezala, eremu horretan bizi dira Nafarroako biztanle gehienak, horietatik zati handi bat euskaldunak, eta bertatik iristen zaizkio Nafarroako Arartekoari administrazio publikoen edo administrazio publikoetako euskararen erabiltzeari buruzko kexa gehienak (haietatik ia % 90 eremu horretakoak dira).

Aplikazio eremua zabalduko litzateke, hala behar baitu, Nafarroako administrazio publiko guztietara: lurraldekoak, erakundekoak, korporatiboak, sozietate publikoak, fundazio publikoak eta abar; bai eta jarduera-esparru desberdinetara ere.

**Bigarrena.** Iradokitzen dugu eremu mistoko herritarrei aitor dakiela Nafarroako administrazio publikoekiko (Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa, toki administrazioak, erakunde publikoak, fundazioak eta sozietate publikoak...) idatzizko harremanetan euskaraz artatuak izateko eskubidea, gaztelania ere sartuz, nolana ere, erantzuteko idazkietan, gaztelania baita eremu horretako hizkuntza ofizial bakarra. Horrela, aintzat hartuko litzateke Europako Kontseiluko Adituen Batzordeak Erregio edo Gutxiengoan Hizkuntzen Europako Gutunari buruz eginiko II. txostenean adierazitakoa.

Ildo beretik, iradokitzen dugu herritarrak eskubide horretaz balia daitezen errazteko, eremu mistoko administrazio publikoek beren prozedura eta inprimakiak bi hizkuntzetan (gaztelaniaz nahiz gaztelaniaz eta euskaraz) jartzea jendearen eskura eta herritarrek aukera egiteko duten eskubidea bideratzea, hain zuzen ere Nafarroako Auzitegi Nagusiak abenduaren 16ko 1221/2004 epaian adierazi bezala.

**Hirugarrena.** Iradokitzen dugu ezen eremu euskalduneko hiriarteko bide-errotulazioa osoa, eta ez-partziala, izan dadila euskarari dagokionez, koofizialtasunaren printzipiotik heldu den seinaleen hizkuntza-bikoiztasuna bermatzeko eta hizkuntza bakoitzaren arau gramatikalak betetzeko. Esate baterako, Frantziari buruzko seinaleetan Francia/Frantzia jarri beharko litzateke, eta abar.

**Laugarrena.** Iradokitzen dugu ezen eremu mistoan diharduten Nafarroako administrazio publikoen errotulazioa, seinaleak –barnekoak zein kanpokoak– eta paper-gauzak elebitan egon daitezela. Horretarako, iradokitzen dugu ezen, gaztelaniak hizkuntza ofizial gisa duen lege-izaera eta euskarak Nafarroako beste hizkuntza bereki gisa duen izaera kontuan hartuta, euskarazko testua bigarren lekuan ager dadila eta gaztelaniazko testuaren tamaina berarekin; halere, ez dago inongo eragozpenik beste letrakera bat erabiltzeko,

irakurleak –are gehiago Nafarroako Foru Komunitateaz kanpoko pertsonen kasuan– beste hizkuntza bat dela, Nafarroak berezko duena, atzeman dezan.

**Bosgarrena.** Iradokitzen dugu ezen eremu mistoko bide errotulazioa –hiriartekoa zein hiri barnekoa– euskaraz egon dadila osorik, eta ez zati batean, batetik seinaleetan hizkuntza-bikoiztasuna islatzeko eta bestetik hizkuntza bakoitzak berezko dituen arau gramatikalak errespetatzeko. Esate baterako, hiriarteko errotulazioan, aldezen dugu Pamplona-Iruña eta abar erabil daitezela; eta hiri barnekoan, berriz, calle Oyarbide/Oiarbide kalea (topónimo-toponimoa); calle Pío Baroja/Pío Baroja kalea (escritor-idazlea); calle Sancho El Fuerte/Antso Azkarra kalea (rey navarro-nafar erregea)...

**Seigarrena.** Errotulazioari eta bide seinaleei dagokienez (hiri barnekoa zein hiriartekoa), eremu mistoan eta eremu ez-euskaldunean, iradokitzen dugu ezen seinaleetan, gatzelaniaz gainera (hizkuntza ofiziala), atzerriko hizkuntzetako informazio-testuak erabiltzen badira (adibidez, ingelesez edo frantsesez), euskaraz ere ager daitezela, lehentasunezko tokia hartuz atzerriko edozein hizkuntzaren aldean, euskara, legez, Nafarroako hizkuntza berekia baita.

**Zazpigarrena.** Irakaskuntzari dagokionez, iradokitzen dugu ezen, eremu ez-euskaldunean, gizartearen eskariari erantzunez, Administrazioak sor ditzala, hezkuntza legedia orokor indardunean ezarritako terminoetan, D eremuan irakasten duten ikastetxe publikoak.

**Zortzigarrena.** Irakaskuntzaren esparruan, orobat, iradokitzen dugu ezen, Europako Kontseiluko Adituen Batzordeak Erregio edo Gutxiengoan Hizkuntzen Europako Gutunari buruz eginiko II. txostena kontuan hartuta, Hezkuntza Departamentuak, gizartearen eskariak ikusita, euskarazko irakaskuntza tekniko eta profesionalerako eskaintza handi dezan, bereziki eremu euskaldunean eta eremu mistoan.

**Bederatzigarrena.** Auzitegi Gorenaren 2009ko uztailaren 7ko epaiari jarraituz, iradokitzen dugu ezen euskara merezimendu bereki gisa baloratu dadila funtzio publikoaren arloan eta funtzio publikoan sartzeko edo haren lanpostuetan sartzeko, Euskarari buruzko Foru Legean ezarritako moduan, Nafarroako hizkuntza berekia delako, bereziki babestutakoa; eta sekula ez dadila balorazio hori konparatu atzerriko hizkuntzei eman dakioken balorazioarekin. Atzerriko hizkuntzen balorazioak berariazko merezimendu gisa agertu beharko

luke, eta horren justifikazioa, kasuan kasuko lanpostu zehatza betetzeari dagokiona, plantilla organikoan jaso beharko litzateke.

**Hamargarrena.** Eremu mistoan egon eta muntako funtzionarioen kopuru batetik (esate baterako, hogeita bost) gora duten Nafarroako administrazio publikoei edo bi mila biztanletik gora dituzten udalei iradokitzen diogu ezen gutxienez ere bulego zentrolean lanpostua duen pertsona batek euskaraz jakin dezala eta gauza izan dadila ahoz erantzuteko hizkuntza hori ahoz erabiltzeko legezko eskubideaz baliatu nahi diren herritarrei.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kasuan, iradokitzen dugu irizpide bera aplika dadila, baldin eta kasuko administrazio-unitatea eremu mistoan badago. Nafarroako Gobernuko departamentuen, haren erakunde publikoen eta haren sozietate eta fundazio publikoen kasuan, haietako bakoitzean, jendaurreko bulegoetan, gutxienez ere langile bat egon beharko litzateke herritarrari euskaraz ahoz zuzentzeko eta informazioa euskaraz jasotzeko gauza izanen dena. Horrela, Europako Kontseiluko Adituen Batzordeak Erregio eta Gutxiengoen Hizkuntzen Gutunari buruz eginiko II. txostenean adierazitakoa beteko litzateke.

**Hamaikagarrena.** Nafarroako Gobernuari iradokitzen diogu ezen euskara administrazio publikoetan, irakaskuntzan komunikabideetan eta gizarte bizikidetasuneko gainerako esparruetan sustatzeko planak, urteko programak eta urte anitzeko programak onets eta gara ditzala; betiere, kontuan izan beharko ditu, modu eraginkor eta proaktiboan, Euskarari buruzko Foru legean eta aplikatzekoak diren gainerako lege-arauetan ezarritako helburu eta xedapenak. Plan horietarako behar adina baliabide ekonomiko, material eta giza arlokoak jarri beharko lirateke.

**Hamabigarrena.** Europako Kontseiluko Adituen Batzordeak Erregio eta Gutxiengoen Europako Gutunari buruz eginitako II. txostena kontuan hartuta, iradokitzen dugu berma dadila Nafarroan Euskal Autonomia Erkidegoko hedabide publikoen irrati- eta telebista-emisioak jasoko direla. Horretarako, hitzarmenak egin ahalko dira Euskal Autonomia Erkidegoarekin, LORAFNAko 70.2 artikuluan ezarritako moduan.--

Halaber, gogorarazten dugu Euskarari buruzko Foru Legeko 28. artikulua Nafarroako administrazio publikoei agintzen diela babes dezatela euskaraz egiten diren azalpen kultural eta artistikoak, liburu argitalpenak, ikus-entzunezko ekoizpena eta bestelako ekintzak.

27. artikulua, halaber, administrazio publikoei agintzen die bultza dezatela euskararen mailaz mailako presentzia komunikabide publiko eta pribatuetan; eta bereziki Nafarroako Gobernua aipatzen du, eta hari buruz dio diruz eta materialez laguntzeko planak gauzatzeko dituela komunikabideek euskara gero eta gehiago eta ohiko moduan erabil dezaten.

Azkenik Nafarroako Gobernuari dagokio euskararen presentzia egokia zaintzea Nafarroako Foru Komunitateak kudeatzen dituen telebista- eta irrati-emisoretan eta gainerako komunikabideetan. Horretarako, administrazio kontzesioak egin ditzake hirugarrenekin, kontratuei buruzko legedian ezarritako moduan. Halaber, Nafarroako Gobernuak aintzat hartu beharko luke Nafarroako Parlamentuaren 2005eko abenduaren 23ko ebazpena. Izan ere, haren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Europako Kontseiluko Adituen Batzordeak emaniko txostenari jarraituz, irrati-lizentzien etorkizuneko adjudikazioetan, baimena eman diezaion programazioa euskaraz ematen duen irrati bati, eta horretarako kontuan har dezan azken hamarkadetan irratia arloan euskararen alde egindako lana.

**Hamahirugarrena.** Iradokitzen dugu bete daitezela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan

administrazio elektronikoa ezartzeari buruzko apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legeko aurreikuspenak, eta, zehazki, berma dadila herritarrek administrazio-prozedura elektronikoetan gaztelania eta euskara erabiltzeko daukaten eskubidea [aipatu foru legeko 4.b) artikulua]. Nafarroako Gobernuaren web zerbitzuen ataria gaztelaniaz eta euskaraz egon beharko litzateke, edizio bereizietan, herritar bakoitzak egokien irizten duen edizioa erabil dezan Foru Administrazioarekiko harremanetan, apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legeko 42.3 artikuluan ezarritako moduan.











**Defensor del Pueblo  
de Navarra**  
**Nafarroako Arartekoa**











**Defensor del Pueblo  
de Navarra**  
**Nafarroako Arartekoa**